Apirilekoak dira ur milak
Haize lardatsak jotzen du
Eta laino artean
Daude zeru urdin zatiak.

Ura eta eguzkia. Zeruak distira.
Urrutiko hodei batean,
Sigi-saga,
Tximist horiak badira.

- **Zer esan nahi du "haize lardatsak"?**
  A. Haizetea.
  B. Haize bortitza
  C. Haizea eta euria batera
  D. Edozein norabidean jotzen duen haizeak
  E. Haize suabe eta freskoa

- **Nolako eguraldia deskribatzen da poesia honetan?**
  A. Beti lainotsua.
  B. Euria gelditu gabe eta gogor.
  C. Eguzkitsua eta haizea.
  D. Hotza eta lainotuta.
  E. Laino eta eguzki artean

- **Zein izenburu izango litzateke egokia poesia honetarako?**
  A. Udaberriko euria.
  B. Zaparrada bukaezina.
  C. Gaueko ekaitza.
  D. Negua izozturik.
  E. Eguraldiaren informazioa.

LIVEWORKSHEETS